

MOTELAGO BIZITZEN IKASI BEHAR

2008an ekonomiak erritmoa galduko duela ia ziurra da; prezioen eta planetaren geroari ere adi egon beharko.

// I. A.

Hastear dagoen urteari buruz ados dira nazioarteko erakundeak eta Euskal Herrikoak ere: hazkundera txikiagoa izango da, baina krisi ekonomirik ere ez da izango. «Badirudi gure ekonomiak bizi izandako goraldi ekonomikoak bere goia jo duela eta 2008 kaskarragoa izango dela ekonomia eta enpleguaren hazkunderaren aldetik. Dena den, arrisku handiko hipotekekin sortutako arazoak gorabehera, txarra izango denik ere ezin esan liteke», uste du Mikel Navarrok.

Moteltzea ziurtzat jo du Joseba Barandiaran ekonomistak ere, eta euskal herritarren zorpetze maila kontuan hartuta, oharra egin du: «Oso azkar moteltzen bada, enplegua gutxitu eta zorpetzearen bidez berankortasunean izan dezakeen eragina itzela izango da».

«Txanpatik oraindik gelditzen den indarra aprobetxatuz», egiteke dauden «etxeko lanak» egitera aholkatu du Navarrok: «Gure berrikuntzako sistemak pairatzen dituen ahulezia nabarmenak gainditu behar ditugu eta gure enpresen estrategien sofistikazioa handitu».

Hipoteken ajea

Estatu Batuetako hipoteka zaboreen krisia areagotu egingo dela ziurtatu du Joseba Garmendiak, eta ohartu du bankuak eta kutzak neurriak hartzen ari direla «etor daitekeenari» aurre egiteko. «Oso esanguratsuak izan dira azken hileko mugimenduak, Ipar Ameriketako eta Europako banku zentral nagusiek likidezia handitzeko eta dolarrari eusteko hartutako neurriak, adibidez. Dagoen beldurra tamaina erakusten du».

Ezkorra da Garmendia. Susmoa du bankuek maileguen eskaintza erabat murriztu eta enpresetako inbertsioak tratatuko ote dituzten. Herritarren patrikek ere berea jasango dutela uste du. «Euriborrek gora egingo duen edo nora arte argi ez dago, eta gainera, inflazioari begiratu beharko zaio. Petrolioaren garestitzeak eta elika-

gaien merkatuen berregituraketak —bioerregaien efektuak eta Txina, India eta Brasilen eskari handiek agerian utzi dute eskaintzaren ezintasuna— prezioetan eragina izaten jarrai dezake».

Nazioarteko harreman politiko-ekonomikoek zeresana emango dutela aurreratu du Mikel Zurbanok. Batetik, ohartu du «zirt edo zart» egingo duela Merkataritzaren Mundu Erakundeak, 2008an baita ixtekoa Dohako liberalizazio negoziazioa. Aurrera egiten badu, «litekeena da integrazio kontinentaleko prozesuak azkartzea, batik bat Asian eta Amerikan». Baina huts egiten badu, MME bera auzitan geratuko da.

Planetari begira

«Natur baliabideen gehiegizko utziapenarekin» kezkatuta dago Yolanda Jubeto. «Gaur egungo aztarra ekologikoaren pisua eta garrantzia bultzatzen duen sistema ekonomikoaren mugak hausnarketarako eta aldaketarako seinale garbiak dira».

Klimaren aldaketari heltzeko garaia dela ziurtatu du Goio Etxebarriak. «Aurten bada, hainbat hobe». AEBek eta Txinak «hazkundera galgalk ez jartzeko» argudioa kritikatu du: «Stern txostenaren arabera, ezer egingo ez balitz urtero munduko BPGn %5eko kostua izango du, hori hipotesirik normalenean. Txarrena gauzatu bada, irits liteke BPGren %20raino. Klima zaintzeko neurriak hartzen badira, kostea soilik BPGren %1 izango da».

Ingurumenarekin lotuta ere, AHTri begira ari dira adituak. «Administrazioen jarrera kontraesangarria eta hipokrita» deitoratu du Garmendiak. Batetik, «egitasmo erraldoi, garesti, ingurumenarekiko erasokorra eta balio sozial eskasekoa abian jarri dute, eta bestetik, diskurtso ekologista eta iraunkorraz betetzen dituzte prentsa oharrak. Noizean behin zundagloboak igortzen dituzte, azkena gidariak hiriburuetarako sarrera ordaintzaraztearen proposamena».

Barandiaranek uste du AHTk hiriburuen erdiguneei baizik ez diela «itxuraz» mesede egingo, eta tranbiak eta tren bidezko merkantziak bultzatzea hobetsi du. Azpiegitura erraldoiek (Pasaiaiko portua, Hondarribiko aireportuaren hedapena, errauste plantak...) aurrera egiten badute, Klima Aldaketarako Euskal Plana «paper hutsa» bihurtuko dela ohartu du Zurbanok.

Erakunde aurreikuspenak

| Herrialdea | NDF | | | OCDE | | | EB | | |
|----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| | 2006 | 2007 | 2008 | 2006 | 2007 | 2008 | 2006 | 2007 | 2008 |
| Mundua | 5,4 | 5,2 | 4,8 | - | - | - | 5,4 | 5,1 | 4,7 |
| OCDE | - | - | - | 3,1 | 2,7 | 2,3 | - | - | - |
| AEB | 2,9 | 1,9 | 1,9 | 2,9 | 2,2 | 2,0 | 2,9 | 2,1 | 1,7 |
| Japonia | 2,2 | 2,0 | 1,7 | 2,2 | 1,9 | 1,6 | 2,2 | 1,9 | 1,9 |
| Eurogunea | 2,8 | 2,5 | 2,1 | 2,9 | 2,6 | 1,9 | 3,0 | 2,9 | 2,4 |
| Alemania | 2,9 | 2,4 | 2,0 | 3,1 | 2,6 | 1,8 | 2,9 | 2,5 | 2,1 |
| Frantzia | 2,0 | 1,9 | 2,0 | 2,2 | 1,9 | 1,8 | 2,0 | 1,9 | 2,0 |
| Italia | 1,9 | 1,7 | 1,3 | 1,9 | 1,8 | 1,3 | 1,9 | 1,9 | 1,4 |
| Espainia | 3,9 | 3,7 | 2,7 | 3,9 | 3,8 | 2,5 | 3,9 | 3,8 | 3,0 |
| Erresuma Batua | 2,8 | 3,1 | 2,3 | 2,8 | 3,1 | 2,0 | 2,8 | 3,1 | 2,2 |
| Errusia | 6,7 | 7,0 | 6,5 | 6,7 | 7,3 | 6,5 | 6,7 | 7,7 | 7,0 |
| Turkia | 6,1 | 5,0 | 5,3 | 6,1 | 5,1 | 5,8 | 6,1 | 5,1 | 5,8 |
| Txina | 11,1 | 11,5 | 10,0 | 11,1 | 11,4 | 10,7 | 11,1 | 11,2 | 10,3 |
| India | 9,7 | 8,9 | 8,4 | 9,4 | 8,8 | 8,6 | 9,2 | 8,5 | 7,7 |
| Argentina | 8,5 | 7,5 | 5,5 | - | - | - | - | - | - |
| Brasil | 3,7 | 4,4 | 4,0 | 3,7 | 4,8 | 4,5 | 3,7 | 4,7 | 4,4 |
| EAE | 4,2 | 4,0 | 3,6 | | | | | | |
| Nafarroa | 3,9 | 3,8 | 3,1 | | | | | | |

ITURRIA: NDF, OCDE, EB, ELUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA

ERAKUNDE GUZTIK, ERNE

Hazkunde ekonomikoa ia herrialde guztietan motelduko dela iragarri dute eragile ekonomiko nagusiek.

// I. S.

Hazkunderaren bidetik bai, baina orain arte baina apalago. Finantza merkatuen nahasmena eta AEBetako etxebizitza merkatuen egoerak erne jarri ditu munduko eragile ekonomiko nagusiek. Ekonomia ez da geldituko, ez eta atzeraldian sartuko, baina oparoaldia gehiago luzatzeko arrisku horiek gainditu beharko dira.

Uztaileko datuak puntu erdi murriztu behar izan zituen Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) bere azken txostenean. Hala ere, hazkunde ekonomiko «irra» iragarri du mundurako, %4,8koa, herrialde emergenteen bultzada «kementsuari» esker. Oro har, horietan barne produktuak aurten baino apalago aurrera egingo duen arren, ekonomi aurreratuenak gaituratu dituzte. Esaterako, Txinan (%10), Indian (%8,4), eta Errusian (%6,5).

Edonola ere, arriskuek bere horretan jarraitzen dutela ohartarazi du erakunde aldeaniztunak,

batez ere finantza arloko ekaitzaren ondorioz. «Finantza merkatuen tentsioak espero baino gehiago luzatzen badira, moteldialdi luze jo dezake». NDFk, gainera, egoera horrek ekonomia «errealean» eragina izan dezakeela ohartarazi du. Hala ere, erakundearen apustua da likidezia arazoak datozen hilabeteetan uxatuko direla. Bien bitartean, ekonomiaz arduratzen diren eragileen eginbehar nagusia merkatu horien normaltasuna berreskuratzea dela aldarrikatu du.

Zama bihurtzeko moduan dauden beste hiru aldagai ere aipatu ditu NDFk: inflazioaren presioa suspertzea, petrolio merkatuen egonkortasun eza, eta dibisen sarrean handiak merkatu emergenteetan duen eragina.

Behera eginiko irakurketa, batez ere, AEBei dagokie, eta bertako ekonomiaren hazkundera ez duela 2007an eta 2008an %2 gaituratu kalkulatu dute. Era berean, EBko herrialde ia guztietan moteldialdi iragarri du, eta EBZri gomendio argia eman dio: zantzak uxatzen diren neurrian komeniko litzateke txanpon politika gogortzea.

Bestalde, ustekabeen datorren urterako iragarpena aldatu zuen Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeak (OCDE) abenduaren hasieran. Hain zuzen AEBetako datua %2,5etik %2ra murriztu du, eta Eurogunekoa, berriz, %1,9an utzi

du, aurretik %2,3ko igoera iragarri zuen arren. Erakunde osoa osatzen duten ia herrialde guztietarako beherantzko zuzenketa egin duen arren, egoera ez dela «hain txarra» argudiatu du Jorgen Elmeskov erakundearen Ekonomia Departamenduko arduradunak, «kontuan izanik ekonomiak pairatu dituen kolpe guztiak».

Eta zeintzuk dira OCDEk sumatu dituen kolpe horiek? Lehenik eta behin, etxebizitzaren sektoreak AEBetan duen txakalaldia. Hala ere, erakundearen ekonomialariek ez dute espero herrialde atzeraldia bultzatzeko adina indar izango duenik, eta soilik langabeziaren igoera txikia espero dute. Horrekin batera finantza merkatuen krisia eta energia zein beste lehengaien salneurrien igoera leudeke.

Europako Batasunak udazkenean kaleratu zituen bere aurreikuspenak. Analista batzuen irudiko, finantza merkatuen egoeraren eraginak urte bukaera arte izan duen eraginaren erruz are apalagoak izango dira, baina Joaquin Almunia Ekonomia eta Txanpon Gaietarako komisarioak ez ditu aldatu. Hala, Eurogunearen hazkundera %2,2 izatea espero du datorren urterako. Uda-berriko txostenaren alderatuz gero, %0,3 murriztu ditu bere aurreikuspenak, batez beste, EBk.

Nazioarteko egoera lagun ez badu ere — finantza merkatuez gain, AEBetako gorabeherak eta petrolioaren etenik gabeko igoera daude — bertako sendotasunean oinarrituko da ekonomia. Hain zuzen ere, barne kontsumoa bultzada nagusia izango da, EBren ustez, enplegu sorrera iraunkor bati esker: 2007-2009 urteen artean kontinentean zortzi milioi lanpostu sortuko direla espero du Bruselak.

Hegoaldean, %3tik gorako hazkundera

Hego Euskal Herrian ere hala Eusko Jaurlaritzak nola Nafarroako Gobernuak euren ekonomia txostenak atxiki dituzte datorren urterako aurrekontu proiektuan. EAERI dagokionez, BPGk joan den urtean %4,2ko hazkundera apartekoa izan ondotik, beherantzko joerari helduko dio 2010. urtean arte. Ziklo horren bukaran ekonomia 2002ko mailara itzuliko da (%2,7ko hazkundera). Interes tasa handiagoen ondorioz, inbertsioa eta kontsumo pribatua motelduko dira, Jaurlaritzaren txostenaren arabera. Zerbitzu eta industria sektoreek sostengatuko dute hazkundera.

Nafarroan ere joera hori errepikatuko da datorren urterako. Enpleguaren sorrera motelduko da, eta horrek kontsumo pribatuari kalte egingo dio, kredituak emateko baldintza gogorragoekin batera. Bestalde, kapital formazio gordinak aurrera egiten jarraituko du, tasa apalagoekin izango dela espero den arren.